



Komunikazioaren, Herritar
Elkarrizketaren eta Lurraldearen
Erakargarritasunaren Zuzendaritza
05 59 46 60 40
communication@bayonne.fr

2023ko martxoaren 29an

PRENTSA OHARRA

BAIONAKO XINGAR AZOKA 2023

Etxaldeko xingar onenaren lehiaketarako izena ematea partikularrentzat zabalik

Etxaldeko xingar onenaren lehiaketak ireki ohi du Xingar Azoka eta 560. aldi honetan, 2023ko apirilaren 6an, ostegunarekin, eginen da. Ekoizle partikular orori da zabalik. Lehiaketan parte hartzeko, Baionako Herriko Etxeari eman behar zaio izena; egun berean, lehiaketa hastera doan unera arte, egin liteke. 2022an, 39 ekoizlek hartu zuten parte eta Marcel Hualde aldudarrak irabazi zuen 2022ko etxaldeko xingar onenaren lehiaketa, 20,4 kiloko xingar batekin.

Ezin baztertuzko ekitaldi hori gertakari baionar-baionarra dugu. Parte hartzaileak 2023ko apirilaren 6an, ostegunarekin, dira etortzekoak, 7:30 eta 8:30 artean, Azokaren zabaltegiara, beren xingarra lehiaketarako aurkez dezaten. Izena aitzinetik ematen duten ekoizleek aparkatzea urririk ukanen dute egun osoan zehar, bai eta ongi etorria egiteko kafea Roquebert kaiko gunean eta bazkaria urririk ere, Baionako Zezenketa Elkartean.

Argibideak nahi dituzten ekoizleak edota izena eman nahi dutenak Baionako Herriko Etxearekin jar daitezela harremanetan, honako telefono honetara deituz 05 59 59 21 81.

2023ko sariak:

1. saria: plantxa bat eta xingar irabazlea enkantean saltzea.
2. saria: 400 € (opari-txeketan) Baionako Herriaren Turismo Bulegoak eskainia.
3. saria: 200 € (opari-txeketan) Baionako Merkataritza eta Eskulangintza Bulegoak eskainia.
4. saria: sari berezia Kofradiak eskainia, aurkezpen ederrenari: 150 €.

Sari banaketa eguerdian tanko eginen da Roland-Barthes zabaldegiko terrazan.

Baionako Herriko Etxearen prentsarekiko harremanak - 05 59 46 63 01 - presse@bayonne.fr